

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ETURAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasa ordaindu behar dutenen kontribuzio errolda jendurrean jartzea, eta 2025eko bigarren sei hilekoko ordainagiriak borondatezko epean kobratzeko moduan jartzea

Egin delarik Eturako etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasaren 2025eko bigarren sei hilekoari dagokion kontribuzio errolda, jendurrean egongo da hamabost egun baliodunetz, iragarki hau ALHAOn argitaratu ondorengo egunetik aurrera, interesdunek aukera izan dezaten aztertzeko eta egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko.

Interesdunek Eturako (Araba) Administrazio Batzarraren kontzeju aretoan aztertu ahal izango dute espedientea.

Ediktu honen bidez, erroldako likidazioen jakinarazpen kolektiboa egiten da, bat etorritik Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 98.3 artikuluan xedatutakoarekin.

Jendurrean jartzen diren erroldetan jasotako likidazioen aurka berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio erregidore-lehendakariari, hilabete epean, ediktu hau argitaratzen deneetik aurrera. Aldizkako epemuga eta jakinarazpen kolektiboa duten zorrak direnez, ordaintzeko borondatezko epean ere jarri ahal izango da errekurtsoa, edo hura amaitu ondorengo egunetik hilabete igaro baino lehen.

Borondatezko bidean kobratzeko epea 2026ko maiatzaren 6tik ekainaren 6ra artekoa da, bi egun horiek barne direla.

Zergaren ordainketa helbideratuta daukatenei 2026ko ekainaren 6an kobratuko zaie.

Finantza erakundeetan helbideratu gabeko ordainketak: tasaren ordainketa helbideraturik ez daukatenek Kutxabanken bulegoetan ordaindu beharko dute, 08:30etik 10:30era, etxean jasoko duten kobratze jakinarazpena aurkeztuta, edo Vitalneten. Ordainagiria galtzen bada edo jasotzen ez bada, kopia bat emango da administrazio batzarrean.

Finantza erakundeetan helbideratutako ordainketak: Eturako Administrazio Batzarrak zordunketa zuzenean kudeatuko du ordainketa helbideratu den finantza erakundeetako kontuetan.

Borondatezko epea amaitu eta diru sarrerarik egin ez bada, premiamendu bidean kobratuko da, dagokion errekargu eta guzti, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorren 28. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Etura, 2026ko martxoaren 30a

Lehendakaria

FÉLIX PÉREZ DE ARRILUCEA MADINAVEITIA